

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Ekonomia, beheraka etengabe

58.000 enplegu suntsitu dira

**Langabeziaren inoizko
kotarik altuenetakotean gaude**

**HEHko langabetuetatik, 109.223k
ez du inolako prestaziorik jasotzen**


HEHko lan prekarietateaz

**EEEek ukitutako langile
kopuruak %60 egin du gora**

Prezioen bilakaera

Hego Euskal Herriko lan eta ekonomi egoeraren adierazleak

| | DATUA | ERREFERENTZI ALDIA | 12 HIL. LEHENAGO |
|--|-----------|--------------------------|------------------|
| ENPLEGUA ETA LANGABEZIA | | | |
| JARDUERA TASA (%) | 74,9 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 74,7 |
| JARDUERA TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%) | 77,7 | 2012ko IV. HIRUHILEKOA | 76,5 |
| LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA | 1.084.600 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 1.142.600 |
| SOLDATAKO BIZTANLERIA | 891.300 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 945.600 |
| ALDI BATERAKO TASA (%) | 18,4 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 21,5 |
| ALDI BATERAKO TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%) | 13,6 | 2012ko IV. HIRUHILEKOA | 14,1 |
| BIZTANLERIA LANGABETUA | 222.400 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 190.500 |
| LANGABEZI TASA (%) | 17,0 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 14,3 |
| LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%) | 12,4 | 2012ko IV. HIRUHILEKOA | 12,6 |
| GAZTEEN LANGABEZI TASA (%) | 47,6 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 37,5 |
| GAZTEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%) | 22,2 | 2012ko IV. HIRUHILEKOA | 23,6 |
| EMAKUMEEN LANGABEZI TASA (%) | 17,5 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 14,4 |
| EMAKUMEEN LANGABEZI TASA 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%) | 13,0 | 2012ko IV. HIRUHILEKOA | 13,1 |
| SINATURIKO KONTRATUAK | 342.710 | 2013ko URTARRILA-MAIATZA | 335.424 |
| KONTRATATU MUGAGABEAK | 24.683 | 2013ko URTARRILA-MAIATZA | 22.292 |
| ENPLEGU ERREGULAZIOA | | | |
| ONARTURIKO FITXAK | 1.341 | 2013ko URTARRILA-MARTXOA | 967 |
| ERAGINDAKO LANGILEAK | 23.665 | 2013ko URTARRILA-MARTXOA | 14.788 |
| ESKAITZA ETA ESKARIA | | | |
| INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.) | -4,0 | 2013ko APIRILA | -8,1 |
| BPGd EAEn (%ALD.) | -1,9 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | -0,4 |
| BPGd NAFARROAN (%ALD.) | -1,7 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | -0,5 |
| BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.) | -2,0 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | -0,7 |
| BPGd 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.) | -0,7 | 2013ko I. HIRUHILEKOA | 0,1 |
| PREZIOAK | | | |
| URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.) | 1,4 | 2013ko APIRILA | 2,1 |
| URTEARTEKO KPIa 27-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.) | 1,9 | 2013ko MARTXOA | 2,9 |
| <p>Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.</p> <p>Lan istripuen ataleko datuak EAEkoak dira. Azterketa hau bukatzean ez dugu Nafarroako urteko datuak ezagutzeko aukerarik izan</p> <p>Enplegu eta langabeziko datuak, 16 eta 65 urte bitarteko adin tarteari dagozkie. Bestela, adin tartea zehaztuko da.</p> <p>Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra</p> <p>2013/6/6an eguneraturiko informazioarekin</p> | | | |
| 123. zenbakia Egoeraren azterketa 2013ko ekaina | | | |



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Ekonomia etengabeko beherakadan.....4
2. Urtebetean 58.000 enplegu suntsitu dira.....4
3. Langabeziaren inoizko kotarik altuenetakoak5
4. HEHko 109.223 langabek ez dute inolako prestaziorik jasotzen.....5
5. HEHko lan prekarietatea6
6. EEEek ukitutako langile kopuruak %60 egin du gora.....7
7. Prezioen bilakaera7

PUNTAKO GAIA:

Eusko Jaurlaritzaren enplegu planaren balorazioa eta ELAren proposamenak enplegu duinaren alde

0. Sarrera8
1. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plana8
2. Kalitatezko enplegua sortzeko ELAren proposamenak.....10

ERABILITAKO SIGLAK

| | |
|--------|--|
| HEH | Hego Euskal Herria |
| EAE | Euskal Autonomi Erkidegoa |
| EB | Europako Batasuna |
| ELGE | Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea |
| BPGd | Barne Produktu Gordina |
| KPI | Kontsumorako Prezioen Indizea |
| BAI | Biztanleria Aktiboaren Inkesta |
| PII | Produktzio Industrialaren indizea |
| Eustat | Euskal Estatistika Institutua |
| NEI | Nafarroako Estatistika Institutua |
| EIN | Estatistika Institutu Nazionala |
| BJA | Biztanle Jardueraren Azterketa |

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoerari buruzko azterketa honek hainbat gai jorratu ditu; besteak beste, ekonomiaren bilakaera txarra, enplegu-suntsiketa, eta langabeek pairatzen duten egoera babesgabea.

** Txosten hau 2013ko ekainaren 6ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da*

Manu Robles-Arangiz Institutua
www.mrafundazioa.org
Twitter: @mrafundazioa

Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa


1. Ekonomia etengabeko beharakadan

2013ko Barne Produktu Gordinaren hazkunderari buruzko datuek joera negatiboa erakusten dute. Zehazki, Eusko Autonomia Erkidegoaren BPGaren urte arteko hazkundera $-1,9\%$ izan da, 2013ko lehen hiruhilekoan. BPGaren bilakaera negatiboa 2012 osoan ere gertatu da Hego Euskal Herrian, baina Nafarroan are handiagoa izan da.

Espainiar Estatuaren hiruhilekoen arteko hazkunde-tasa ere negatiboa izan da; zehazki, 2013aren hasieran, -2% . Espainiar Estatuaren BPGak ere 2012an hazkunde negatiboa izan zuen.

Europako ekonomiak ere $-0,7\%$ ko hazkunde negatiboa izan du 2013ko lehen hiruhilekoan.

BPGa merkatu prezioetan, urte arteko hazkunde-tasak (%).27ko EB, 2012-2013



Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, INE

Oso nabarmena da jendearen eros-ahalmenak ekonomiaren bilakaerarekin duen lotura argia. Izan ere, BPGean, etxeetako azken kontsumoan egiten den gastua neurtzen da, eta gastu horrek erakutsi du hazkundera negatiboa izan dela hala EAEn ($-1,7\%$) nola Nafarroan ($-2,2\%$ koa 2012ko laugarren hiruhilekoan, oraindik ez baitago geroagoko informaziorik),

Horrek kontsumoa txikiagoa izan dela erakusten du, erosteko ahalmenak behera egin duelako, soldatak murriztu egin baitira. Hori joera markatzen ari zaio ekonomiari.

Horrenbestez, BPGa uzurtu da, barne-eskariak behera egin duelako. Barne-eskaria hainbat arrazoi direla medio apaldu da: langabezia handia, erosteko ahalmenaren galera, eta aurrekontuetako murrizketak eta doikuntzak.

Agerikoa da, bilakaera ekonomikoa aldatu nahi bada, egoera hori eragiten duten politikak aldatu beharko direla.

2. Urtebetean 58.000 enplegu suntsitu dira

2013ko lehen hiruhilekoan, HEHko biztanleria aktiboa 1.307.000 lagunek osatua egon da. Biztanleria aktiboa enplegua dutenak edo lan bila ari direnak dira. Aurreko hiruhilekoan, 2012ko azkenekoan, 1.319.900 lagunek osatua zegoen; hau da, orain 12.900 gutxiago dira. Eta urtebete lehenago 1.333.100 lagunek osatua zen; hau da, 26.100 gehiago ziren.

Enplegua duen edo enplegu bila era aktiboan ari den biztanleriaren ehunekoa (jarduera-tasa) $74,9\%$ izan da Hego Euskal Herrian (HEH); hau da, horrek esan nahi du 0,3 puntu igo dela aurreko hiruhilekoaren aldean. Gizonezkoen jarduera-tasa $80,4\%$ izan da (0,3 puntu igo da), eta emakumezkoena, berriz, $69,5\%$ (0,8 puntu jaitsi da). Urteko bilakaerari dagokionez, jarduera-tasa 0,2 puntu igo da, 2012ko lehen hiruhilekotik aurrera.

Jarduera-tasak, beraz, gora egin du; biztanleria aktiboak, aldiz, behera. Hori gertatu da, biztanleria osoaren kopuruak neurri handiagoan behera egin duelako (jarduera-tasa lortzeko, biztanleria aktiboa eta biztanleria osoa erlazionatu behar dira). Alde horretatik, 16 eta 65 urte arteko biztanleria osoak 39.400 lagunetan egin du behera, azken urtean (aldiz, biztanleria aktiboak adin-tarte horretan eta denboraldi horretan, 26.100 lagunetan egin du behera).

Europako jarduera-tasa $77,7\%$ izan da 2012ko azken hiruhilekoan (azken datuak hiruhileko horri baitagozkio). Horrek esan nahi du azken hiruhilekoan $0,3\%$ igo dela.

Urte bukaeran, biztanleria landuna 1.084.600 lagunek osatua zegoen. Horrek esan nahi du



aurreko hiruhilekoan baino 19.900 enplegu gutxiago zeudela.

%53,5 gizonezkoei dagokie (aurreko hiruhilekoan baino 5.900 gutxiago), eta gainerako %46,5 emakumezkoei (duela hiru hilabete baino 14.000 gutxiago).

Sektorez sektore ikusita, 28.100 lagun aritu dira lehen sektorean lanean (biztanleria landunaren %2,6), 67.000 lagun eraikuntzan (%6,2), 237.400 industrian (%21,9) eta 752.100 lagun zerbitzuetan (%69,3).

Biztanleria landunaren urteko bilakaerari dagokionez, 58.000 lagunetan jaitsi da; hots, 1.142.600etik 1.084.600era.

Soldatapeko biztanleria 891.300 lagunek osatua egon da. Hau da, azken hiruhilekoan, soldatapeko 26.100 enplegu galdu dira. Horien %50,7 (452.300 enplegu) gizonezkoei dagokie, eta %49,3 (439.000) emakumezkoei.

Azken urtearen bilakaerak erakutsi du soldatapeko 54.300 enplegu galdu direla.

3. Langabeziaren inoizko kotarik altuenetakoak

EParen arabera, 65 urtetik beherako biztanleria langabea 222.400 izan da 2013ko lehen hiruhilekoan, azken hiruhilekoan 7.000 lagunetan igo baita. 115.200 langabe gizonezkoak dira (aurreko hiruhilekoan baino 3.000 gehiago), eta 107.200, emakumezkoak (4.000 gehiago). Azken urtebetean, biztanleria langabea 31.900 lagunetan igo da.

Horrela, langabezia-tasa %17 da 2013ko hasieran; hau da, 0,7 puntu handiagoa da 2012ko amaieran baino, eta 2,7 handiagoa urtebete aurretik baino.

Emakumezkoen langabezia-tasa %17,5 izan da 2013ko hasieran; hau da, 2,6 puntu handiagoa urtebete lehenago baino. Gizonezkoena %16,6 da (azken urtebetean, 2,4 puntu igo da).

Gazteen arteko langabezia-tasa %47,6 izan da 2013ko lehen hiruhilekoan, urtebetean 10,1 puntu igo ondoren.

27ko EBko langabezia-tasa %10,9 izan da 2013eko martxoan; hau da, 2013ko urtarrilean

zegoen tasa berbera. Azken urtebetean, 2012ko martxotik aurrera, 0,6 puntu igo da. Alde horretatik, nabarmendu behar da zeinen bilakaera desberdina izan duen langabeziak HEHn (urtebetean 2,7 puntu igo baita) eta EBn (0,6 puntu igo baita).

EBko gazteen arteko langabezia-tasa, batez beste, %23,5 izan da 2013ko martxoan (hau da, HEHn baino 24,1 puntu gutxiago); emakumezkoen langabezia-tasa, aldiz, %11 izan da; hau da, HEHn baino 6,5 puntu gutxiago.

Enpleguaren Zerbitzu Publikoaren zerrendetan erregistraturiko langabeziaren datuei erreparatuta, are txarragoak dira. Izan ere, 2013ko maiatzean, HEHn 231.403 lagun zeuden erregistraturik; hau da, aurreko hilean baino 1.630 gutxiago, baina 2012ko maiatzean baino 20.946 gehiago. Azken urtebeteko igoera, beraz, %10 izan da.

Langabezia-tasa kalkulatzeko badugu Enpleguaren Zerbitzu Publikoan erregistraturiko langabeziaren datuak kontuan hartuta, bai eta EParen biztanleria aktiboa kontuan hartuta ere, HEHko langabezia-tasa %17,7 da.

4. HEHko langabetuetatik 109.223k ez dute inolako prestaziorik jasotzen

Langabezian erregistraturiko langabe kopuruak %117,5 egin du gora 2008ko abuztutik hona (krisia hasi zenetik), 106.368tik 231.403ra igaro baita; hau da, 125.035 lagun gehiago daude langabeziaren zerrendetan izena emanik.

Bilakaera lurraldez lurralde ikusten badugu, oharretan gara Nafarroan 24.458 langabe zeudela 2008an eta, 2013ko maiatzean aldiz, 53.185 (28.727 gehiago). EAEn, berriz, 81.910 lagun zeuden 2008an langabeziaren zerrendetan izena emanik, eta 2013ko maiatzean, aldiz, 178.218 (96.308 gehiago).

Datuok berez erabat kezagarriak badira ere, kontuan hartu behar da langabezia-prestazio guztiak agortu dituela langabezian dagoen gero eta jende gehiagok.

Zehazki, 2013ko apirilean, HEHn 109.223 lagun izan dira enplegurik gabe eta langabezia-

prestaziorik eta sorospenik batere kobratu gabe. Hau da, langabeen %46,9k ez du inolako langabezia-prestaziorik jaso. Bestalde, %32,6k kotizaziopeko prestazio bat jaso du (egindako kotizazioen arabera), eta gainerako %20,5ek langabezia-sorospen bat edo gizarteratzeko errenta aktiboa jaso du, baina holako laguntzak txikiagoak izaten dira kotizaziopeko prestazioa baino.

Izan ere, 2008tik hona, %225,7 igo da diru-sarrerarik ez duten langabeen kopurua; 33.536 lagun ziren eta, orain 2013ko apirilean, aldiz, 109.223 dira; hau da, 75.687 lagun gehiago.

Prestaziorik gabeko langabeen bilakaera. HEH, 2008-2013


| | 2008ko abuztua | 2013ko apirila | Igoera |
|-----|----------------|----------------|--------|
| HEH | 33.536 | 109.223 | 75.687 |

Iturria: Enpleguaren Zerbitzu Publikoa

Egoera horri gehitu behar zaio prestazio motaren bat jasotzen dutenen artean gertatu den bilakaera. Izan ere, gero eta gutxiago dira kotizaziopeko prestazioa jasotzen dutenak, eta gero eta gehiago, aldiz, kotizazio gabeko prestazio bat (sorospena edo gizarteratzeko errenta aktiboa) jasotzen dutenak.

2008an, prestazio bat jasotzen zutenen %71,8k kotizaziopeko prestazio bat kobratzen zuen. 2013ko apirilean, aldiz, %61,4 izan da. Eta kotizazio gabeko prestazio bat jasotzen zutenak %28,2 ziren 2008an; 2013an, ordea, %38,6 dira.

Langabezia-prestazioen bilakaera. HEH, 2008-2013



Iturria: Enpleguaren Zerbitzu Publikoa

5. HEHko lan prekarietatea

Behin-behinekotasun tasa %18,4 izan da 2013ko lehen hiruhilekoan. Gizonezkoen tasa %14,9 izan da, eta emakumezkoen behin-behinekotasun tasa, aldiz, %22,1. Gazteen behin-behinekotasun tasa, bestalde, %66,4 izan da.

Behin-behinekotasun tasak izan duen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu azken urtean 3,1 puntu jaitsi dela; horrela, 2012ko lehen hiruhilekoan, %21,5 izan zen, eta 2013ko hiruhilekoan, berriz, %18,4 izan da. Jaitsiera gertatu da, aldi baterako kontratua berritzen ez zaien langileen artean enplegua nabarmen suntsitu delako.

Sexuaren arabera, gizonezkoen behin-behinekotasun tasa 2,7 puntu jaitsi da epealdi horretan bertan (%17,6tik %14,9ra), eta emakumezkoen arteko behin-behinekotasun tasa 3,5 puntu (%25,6tik %22,1era). Behin-behinekotasuna lan prekarietatearen adierazleetako bat da, eta aztergai dugun tasak erakusten du 9,4 puntu handiagoa dela emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino.

Hala ere, behin-behinekotasun tasarik handiena 25 urtetik behekoen artean dago. Izan ere, gazteen behin-behinekotasun tasa %66,4 da, azken urtean 2,2 puntu igo ondoren (%64,2 baitzen).

Aldi baterako kontratu asko suntsitzen ari bada ere, behin-behinekotasunak 4,8 puntu handiagoa



izaten jarraitzen du hemen 27ko EBn batez beste dagoena baino (%13,6, zehazki, 2012ko laugarren hiruhilekoan). Europar Batasunean, behin-behinekotasunez kontratatuturik dauden emakumeak %14,1 dira (HEHn baino 8 puntu gutxiago), eta gazteen arteko behin-behinekotasun tasa %41,5 da (HEHn baino 24,9 puntu gutxiago).

HEHn 2013ko maiatzera arte sinatu diren kontratuei dagokionez, guztira 342.710 izan dira eta, haietatik, 318.027 behin-behinekoak izan dira; %92,8. Hau da, gainerako %7,2 izan dira mugagabeak (24.683 kontratu).

6. EEEek ukitutako langile kopuruak %60 egin du gora

2013ko lehen hiru hilean, enplegua erregulatzeko 1.341 espediente baimendu edo komunikatu dira; hau da, 2012ko epealdi berean baino 374 gehiago. Horrek esan nahi du %38,7 egin duela gora erregulazio espedienteen kopuruak, azken urtean.

Espediente horiek, guztira, 23.665 lagun ukitu dituzte; hau da, orain dela urte bat baino 8.877 gehiago (duela urtebete, 14.788 lagun izan baitziren). Beraz, %60 igo da enplegua erregulatzeko espedienteek ukitutako pertsona kopurua urteko lehen bi hilean bakarrik.

Horietatik, enplegua iraungitzeko espedienteek 1.825 lagun ukitu dituzte (%7,7); lana bertan behera uzteko espedienteek 18.916 lagun (%79,9), eta lanaldia murrizteko espedienteek, azkenik, 2.924 lagun (%12,4).

Enplegua erregulatzeko espediente onetsiak eta hehn ukitutako lagun kopurua (2012ko eta 2013ko urtarrila-martxoa)

| | 2012 | 2013 |
|---------------------|-------|--------|
| Espediente onetsiak | 563 | 1.341 |
| Ukitutako lagunak | 9.140 | 23.665 |


Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa

7. Prezioen bilakaera

Urte arteko KPIa %1,4 izan da 2013ko apirilean, Espainiar Estatuari dagokionez, martxoan baino puntu bat gutxiago igo ondoren (%2,4) eta 2011ko igoera %2,4 izan ondoren. 27ko EBn, bestalde, igoera %1,9 izan da 2013ko martxoan, azken hilean %0,1 bat jaitsi ondoren.

Ondoko grafiko honetan, KPIak 2012ko urtarriletik zer bilakaera izan duen ageri da. Horrela, 2012ko urrira arte, prezioak gero eta gehiago igo ziren eta, orduz geroztik, Estatuan gero eta igoera txikiagoak izan dira. 27ko EBri dagokionez, erregistroak ez dira horren aldatokorrak izan, baina azken hilabeteetan prezioak neurri txikiagoan igo dira.

KPIren urte arteko igoerak (%).
27ko EB, 2012-2013



Iturria: INE, Eurostat

0

Sarrera

Hego Euskal Herrian Enplegu Zerbitzu Publikoetako zerrendetan 233.033 pertsona zegoen apirilean, iaz baino 20.232 gehiago. Krisia Europar Batasunean ere pairatzen ari dira, baina ez ditu hain ondorio lazarriak. Hego Euskal Herrian langabe kopurua urtebetean %9,5 hazi da; aldiz, %2 EB-27an. Halaber, langabezia tasa HEHn %17,7ra igo da, hots, Europako tasa baino 6,8 puntu handiagoa da. Gainera, sinatzen diren kontratuen %93 aldi baterakoak dira oraindik.

Larritzeko modukoak ez dira soilik langabeziaren kopuruak; baita bera jasaten duten pertsonen egoera ere. Hain zuzen, langabeen %46,6ak ez du langabeziako inongo prestaziorik jasotzen, eta %32,9ak baino ez du kontributiboa jasotzen.

Doikuntza politikak eta erreformak -laborala, negozioazio kolektibokoa-, langabezia prestazioen eta beste laguntza sozialen murrizketak... Guztiek ondorio bakarra dute, langabezia eta babesgabezia soziala areagotzea. Beraz, egoera oso txarra izanik, okerrera egitea ekartzen dute.

1

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Plana

Honen harira, joan den martxoaren 18an Eusko Jaurlaritzak bere Enplegu Plana aurkeztu zuen. Bere esanetan, “enplegua sortzeko txoke-plan bat, neurri konkretu eta errealistekin”.

Haatik, hori ez da inondik ere egia. Hau ez da txoke-plan bat, aurrez bazeuden egitasmoen meta eginda osatu baita. Hau Jaurlaritzak berak ere aitortzen du: plana egiteko azpikontrata batengana jo duela eta 14.399 euro gastatu izana azaltzeko dio asmoa “sail desberdinen ekimenak egituratzea” zela, hots, ez du ezer berririk ekarri.

Planaren edukia aztertuta, ELAk honakoa nabarmendu du:

- Plan oso lausoa da. Landutako agiri baten itxura eman nahi du, mardula da (100dik gora orrialde), baina benetan neurriak ez dira bat ere konkretuak, ez helburuei, ez garapenari dagokienez. Hainbat ekintza aipatzen da behin eta berriz -“babestea, sustatzea, aholkatzea, orientatzea”-, baina ez dago horiekiko neurri eta ekinbide konkreturik.
- Kontinuista da. Planean jasotako egitasmo gehienei dagoeneko aurreko gobernuaren agintaldian ekin zitzaien. Bere garaian ere ELAk eman zuen haiei buruzko iritzia, eta enplegua hobetzeko ez dira baliagarriak izan.
- Parte hartzeko aukerarik ez. Planak aurkakoa esanagatik, ez dago ekarpenak egiteko aukerarik. Plana Eusko Jaurlaritzaren lan unilateral bat izan da, eta bere edukiak aurrekontu-proiektura eraman ditu. Beraz, plan itxi bat da, gizartearen parte hartzerik gabe egin dena. Izan ere, ELAk Lehendakariari egindako iradokizunetatik bat bera ere ez da jaso. Errazagoa da esatea plan ireki bat dela, baina benetan propaganda hutsa da, ardura politikoak saihestearren.
- Ez da errealista. Aipatutako neurrien zati batek (esaterako, etxebizitzaren “renove” planak) herritarren aldetik inbertsio ekonomikoak egitea eskatzen du, eta hori egungo krisi latzean ez da egiteko modukoa, ezta langileek -kapital sozialean partaidetza hartuz- enpresak berfinantzatzea ere.
- 2013rako aurrekontua besterik ez da zehazten, lau urterako plana izan arren.

Hain zuzen, aurtengo 281 milioiko kopurua ere ez da benetakoa, zati batean honez gero lotutako gastuak baitira, aurreko urteetan hasitako egitasmoen baitan. Gainera, Eusko Jaurlaritzak ipiniko duen diruari beste balizko ekarpen batzuk gehitzen zaizkio: ekimen pribatuarenak, Foru Aldundienak, udalenak eta are Europar Batasunarenak edota espainiar Gobernuarenak. Honelako plan batean ez da posible beste erakunde eta eragile batzuren esku dauden kopuruak gehitzea, erabakita egongo bailiran. Honek azalpen logiko bakarra du, ahalegin handi baten itxura eman nahi izatea, oinarri objektiborik



ez duten kopuru arranditsuak saltzea, benetako aurrekontua oso urria delarik.

- Enplegua sortu eta mantentzeari buruzko datuak ez dira sinesgarriak, bi arrazoiengatik. Batetik, egiten diren estimazio edo proiektzioen oinarria lehen urterako helburuak, hots, 2013rakoak laukoiztea da. Bestetik, EAEko aurrekontuak moztu dituztenez, aurreikusitako kopuruak ere murriztuzkoak dira; beraz, enpleguan kalterako eragina izango dute, lanpostuak suntsituko dira. Neurriak gehiago zehazteke ezinezkoa da asmatzea enpleguan izango duten eragina. Nolanahi ere, behin eta berriz “estimazio” edota “proiektzio” bezalako hitzak erabiltzeak adierazten du kopuruak ez direla sinesgarriak.

- Jaurlaritza enplegu-emaile gisa ez da agertzen. Ahaztu egiten dira bere politikak: lanpostuak amortizatzea, aldi baterako enplegua murriztea, ordezkapenak ez egitea, elkarte publiko eta azpikontratetan dituzten eraginak, etab.

- Planak berretsi egiten ditu langabeziaren hazkundera eragin duten politikak.

Esparrutzat hartzen dituzte Europar Batasunean eta espainiar estatuan bultzatzen ari diren politikak. Halaber, Eusko Jaurlaritzak aurrekontuak murriztu behar dituela ontzat ematen da. Horrenbestez, langabeziaren hazkundera eragin duten politikei men egiten zaie eta onetsi egiten dira.

Beraz, Plan honi buruz ondorio hauetara iritsi gara:

1. Eusko Jaurlaritzaren hasiera, enpleguari dagokionez, ezin okerragoa da. Aurrekontuak murrizteaz -honek langabezia haztea dakarrelarik- eta enplegu publikoa suntsitzeaz gainera, Enplegu Plan hutsal bat aurkeztu du, kezkatzen dela eta arazoari azkar heldu nahi diola adierazteko. Arazoa oso larria da, eta irtenbide eragingarriak, konprometituek eta berehalakoak behar dira.
2. Langabezia koartada da, ez helburua. Jaurlaritzaren langabeziarekiko kezka erretorika hutsa da. Kasurik hoberenean,

Jaurlaritzarentzat langabezia bere politikaren “albo-efektu” bat da. Bere kezka benetakoa balitz, politikak errotik aldatuko lituzke, eta zalantzan jarriko lituzke (ez bere egin) murrizteko politikak, Europar Batasunak, Rajoyren gobernuak edo Jaurlaritzak berak erabakita direla ere. Aurrekontu- eta zerga-politikak goitik behera aldatu ezean, langabezia, txirotasuna, prekarietatea eta desberdintasun soziala areagotzen duten errezetak aplikatuko dituzte.

3. Eusko Jaurlaritzak prestakuntza eredian ez du aldaketarik egiteko beharra aipatzen, sistemaren kalitatea alboratu eta interes ekonomiko jakin batzuk (patronala, CCOO eta UGTrenak) lehenesten dituen arren. Gainera, ez da inolako aldaketarik proposatzen “enplegurako prestakuntza” izenekoan, denek, Jaurlaritzak berak barne, onartu arren oso kalitate eskaseko eredia dela, non lehen helburua Confebask, CCOO eta UGTri dirua banatzea den eta ez EAEko beharrizan sozial eta ekonomikoak aintzat hartzea. Eredu hau babesten jarraitzea gizarteari iruzur egitea da; hau, noski, bat dator finantziario publikoa duen Elkarrizketa Sozialeko Mahaia mantentzeko borondatearekin.
4. Enplegu planaren arabera aldi baterako kontratuak diruz lagundu eta enplegu prekarioak lehenetsiko dira, soldata apalekin eta hitzarmenak aplikatzen ez direlarik. PPK Espainian egiten duen politikari jarraitzen diote horrela. Bide honetatik, hots, enpresei dirua emanaz, ez da lanpostu bat bera ere sortzen. Ezin da onartu administrazioak prekarietatea eta negoziazio kolektiboan salbuespenak sustatzea.
5. Jaurlaritzak eredu sozialari eusten dio. Banakako pentsamoldea indartzen da (nork bere burua salba beza, autoenplegua, banako ekimen pribatua ...), helburua gizarte indibidualista eta gero eta urriagoak diren lanpostuak lortzeko lehia piztea baita, eta ez enplegua sortzea edota gizartearen baitako elkartasuna. Kolektiboa den guztia suntsitu nahi dute, baita gizartearen kohesioa definitzen duten osagaiak ere.

2

Kalitatezko enplegua sortzeko ELAren proposamenak

ELAren iritziz enplegu-politika kalitatezko lanpostuak sortzen dituen da. Beraz, gogoeta ez da ohiko gaietan agortzen (oso garrantzitsuak izanagatik ere), esaterako prestakuntza sistema egoki baten beharra edo gizartearen beharrianak asetzeko moduko enplegu-zerbitzu publikoa; aitzitik, aintzat hartzen ditu ere lanpostuak sortzeko aukera ematen duten politika estrukturalak.

Hauek dira ELAren proposamenak:

1. Kalitatezko enplegua sortzeko politikak izateko lehenik erabateko aldaketa egin behar da aurrekontu- eta zerga-politikei dagokienez. Doikuntza politikak eta aurrekontuak murrizteak langabezia zeharo gehitzen ari dira. Horregatik, ezinbestekoa da aurrekontu-politika horiei buelta ematea. Gastu publikoa gehitzea ezinbestekoa da, eta honetarako azken urteetako zerga-politikak ere errotik aldatu behar dira; hala eskatu izan du ELAk hainbat proposamenetan. Europar Batasunarekiko defizit fiskala gogoratu beharra dago (urteko 2.000 milioi euro Nafarroan eta 4.400 EAEn), baita horrek eragiten duen deskapitalizazioa eta enplegua sortzeko borondatearen ukapena ere.
2. Arlo publikoa garatu behar da, batik bat Ongizate Estatuarekin zerikusia duten zerbitzuak. Hego Euskal Herrian gastu publikoa gizarte-babesari dagokionez (BPGaren %24,5) batez besteko tasa europarra (% 29,4) baino askoz txikiagoa da, eta honek gizarte-babesaren eta enpleguaren maila jaitsi arazten du. Enplegu publiko maila gehitu behar da hainbat arlotan: osasuna, hezkuntza, gizarte-zerbitzuak, garraioa, etab. Gizarte-babesa hobetzeak kalitatezko enplegu gehiago
- izateko aukera ematen du. Alabaina, Eusko Jaurlaritza kontrako norabidean doa; hala adierazi zuen 2009ko Mahai Orokorreko konpromisoari muzin eginda, zeinaren arabera EEP bidez 9.500 lanpostutarako deialdia egitekoa baitzen.
3. Lanaldi murrizketa, soldata jaitsierarik gabe. Langabeziaren gorakadaren ondorioz produktibitatea asko hazi da, eta honen fruitua enpresen etekinetan metatzen da. Hots, aberastasunaren banaketan lan-errenten zatia gero eta txikiagoa da, enpresarioen eta kapitalaren errenten mesedetan. Lanaldia 35 ordura jaistea, soldata murrizketarik gabe, enplegua sortzeko politika bat da, eta erabat egingarria da aberastasunaren banaketa justuagoa izatea onartuz gero. Izan ere, kontrara egiteak, Jaurlaritzak egin duen bezala -bere garaiko akordioak baztertuz eta Legebiltzarraren 35 orduko lanaldia ezartzen duen legea urratuz- jende gutxiagok ordu gehiagoz lan egingo du. Gainera, lan produktibo zein erreproduktiboaren banaketa ere eztabaidatu beharra dago.
4. KPlz gaindiko soldata igoerak eta gizarte-babeseko maila duinak . Enplegua sortzeko aukera ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko ahalmenarekin lotuta dago. Enplegurik ez badago eta lan-baldintzak gero eta okerragoak badira, ezinezkoa da ondasun eta zerbitzuak eskuratzea. Oinarritzat esportazioa hartzen duen ereduak ez du orekatuko barne-kontsumoa jaistek eragindako enplegu galera. Nola erosiko dugu, diru-sarrerarik gabe? Horregatik, ekonomiarenak egin du soldata jaitsierak eta gizarte-prestazioak murrizten dituen politikak ezarri gero. Egiaztatuta dago soldaten erosteko ahalmena eta gizarte-babesa hobetzeak enplegua sortzen duela eta errentaren banaketa justuagoa ahalbidetzen duela.
5. Gutxieneko soldata duina eta gehienezko errenta ezartzea. Gutxieneko soldata lan- eta bizi-baldintza duinak bermatzeko tresna izan beharko litzateke. Haatik, espainiar estatuan finkatutako zenbatekoa (hileko 645,3 euro,



edota 748,3, aparteko pagen zati proportzionala aintzat hartuz gero) oso eskasa da, inondik ere. Gainera, Frantzia, Herbehereak, Irlanda edo Belgikako 1.400 euroak baino askoz apalagoa da, eta zer esanik ez, Luxemburgoko 1.800 euroak baino. Beharrezkoa litzateke ere gehienezko diru-sarrera baimendu bat finkatzea, aberastasuna esku gutxitan pila ez dadin. Auzi honek justiziarekin, demokraziarekin eta Lurrari izan beharreko errespetuarekin du zerikusia (mugak ezarri behar zaizkio planeta mugatu honek jasaten duen harrapaketari). Errebindikazio hau gauzatzeko hainbat bide badago, esaterako diru-sarrera edo etekin maila jakin batetik gora %100 eko tasa marjinala.

6. Finantza-erakundeen jarduna erabat aldatzea. Aurrezki-Kutxen bankarizazioan atzera egin behar da (Kutxabank, CAN). Halaber, finantza-sistemaren jardunbideari beste norabide bat eman behar zaio, familientzako eta enpresentzako kreditua eman dezan, espekulazioa alde batera utzita eta zerga-ebasioarekin zerikusia duten aktibitateak debekatuz (paradisu fiskalak). Euskal enpresa askoren arazoa kreditu gabezia da; hau mehatxua bihurtu da baita enpresa sendoentzat ere, etorkizuna duten produktuak izan arren. Egungo finantza-sistemak ez ditu dauden beharrianak asetzen, baztertu beharrekoak diren jarduera espekulatiboen ondorioz. Egungo krisia eragin duen espekulazioak bere hortan jarraitzen du.

7. Industri-politika. Finantziarioa bermatu behar da (inbertsioetarako, I+G+Brako edota zirkulanterako), proiektua eta etorkizuneko produktua duten enpresentzat. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak sektore estrategikoak definitu beharko litzuke, eta horrekin batera, hauek bultzatzeko plan konkretuak. Produktu osagarriak eskaintzen dituzten enpresen artean sinergiak bultzatzeko proiektu eta planak ezinbestekoak dira. Honetaz gainera, beharrezkoak dira ere honakoak:

- Erakundeen jarduera aktiboa etorkizuna zalantzan duten enpresentzat kapitala lortzeko bitartekaritza.
 - Enpresen nazioarteratzeko prozesuak lagundu eta sustatzea.
 - Enpresa txiki eta ertainei buruzko plan konkretuak abiaraztea.
 - Ikerketa eta garapenari buruzko hausnarketari ekitea, kontutan izanik diru publikoz lagundu dena gizartearen zerbitzura jarri behar dela.
8. Enplegu berdea sustatzea. Oinarrizkoa da jarduera iraunkorrak sustatzea, ikuspuntu ekonomiko, sozial, zein ekologikotik. Egunetik egunera nabarmenagoa da premia larria dela produkzio, banaketa eta kontsumo eredia aldatzea. Atmosferan neurtzen den CO2 maila da horren isla: dagoeneko milioi partikulako 400dik gora dago, eta onargarri irizitako gehienezko kopurua 350 da. Besteak beste, enplegua sortzeko aukera handia dago energia berriztagarrietan, hondakinen kudeaketa eta tratamenduan, lurzoruen erregenerazioan, nekazaritza ekologikoan (eta lehen sektoreak beste sektoreekiko duen harremanean), kontaminazioaren kontrol eta prebentzioan, etab.
9. Azken urteetan erabaki diren pentsio erreformak indargabetzea. Azken erreformek erretiro adina atzeratu egin dute 67 urteraino, eta pentsio berriak murriztu, erosteko ahalmena bezala. Erretiratzeko adina atzeratzeak gazteen langabezia gehitzen du. Horrenbestez, murrizketak bertan behera utzi behar dira eta pentsioak duinagoak izan behar dira, langabezia murrizten lagungarri izan daitezten. Langile guztiek, edozein kontratu mota dutela ere, Gizarte-Segurantzaren kotizatu behar dute.
10. Enplegua mantendu. Erreforma laboralek lana malgutu egin dute, enpresarioaren erabaki unilaterala medio. Honek kaleratzeak gehitzea eta enplegua prekarizatzea eragin du. Malgutasun handiagoaren ondorioz langabe kopurua hazi egin da, eta horrenbestez, beharrezkoa da eskubide

Puntako gaia:

Eusko Jaurlaritzaren enplegu planaren balorazioa eta ELAren proposamenak enplegu duinaren alde

laboralak hobetzea, azken urteotako erreforma laboralak eta negoziazio kolektibokoak indargabetuz; horrela enplegua suntsitzea galaraziko litzateke, eta lan-baldintzak hobetu. Honi dagokionez, beharrezkoa da zio ekonomiko, organizatibo zein produktiboak medio erabakitako kaleratzeak ez onartzea, enpresek etekinak dituztenean, edo aurreko ekitaldietan izan dituztenean.

11. Enplegu-Zerbitzu Publiko sendoa eta kalitatezko formazio eredu bat garatzea, EAEko beharrian errealak asetzeko:

Egungo enplegurako prestakuntza eredua Espainiakoaren kopia da, hots, porrot egin duen eredu kaskar batena; estatuko ereduak gauza bat besterik ez du ziurtatzen, partaide diren erakundeentzako etekin ekonomikoa, izan ere, funts publikoen herenetik gora beren buruari bideratzen baitiote. ELAk galdegiten du eredu hau bazter dadila eta bertoko diseinu bat ezarri, gure lurraldearen beharrian sozial zein ekonomikoen arabera eta ospea duten lanbide heziketako zentro homologatuek emango dutena.

Bitartekaritza laboralari buruz, ELAk aldarrikatzen du Enplegu-Zerbitzu Publikoak egin dezala, erakunde pribatuentzako diru-laguntza eta finantziario sistema alde batera utzita; erakunde horiek sarri ez dute zerbitzu egokirik eskaintzen, ez aukera-berdintasuna bermatzen.

Enplegu eta formazioko eskumenen transferentzia salatu, erabakitzeko ahalmenik gabe eta galera ekonomikoa eraginez gauzatu baitzen. Enplegu-politikei buruz erabakitzeko ahalmena (politika aktiboek zein pasiboek dagokienez) euskal erakundeen esku behar dugu, hau funtsezko osagaia baita Lan-Harremanen eta Gizarte-Babesaren Esparrua deitzen diogun horretan.